

Gasteizen, 2012ko uztailaren 20an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Irazu, Jose «B. Atxaga»,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Torrealдай, Joan Mari,
Uribarren, Patxi, eta
Zabaleta, Patxi

Erramun Osa, idazkariordea, eta
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,

Ezin etorriak eta ahalak: J. L. Lizundiak
ahala J. Haritschelharri, 12:30etik aurre-

ra; P. Salaburuk ahala Patxi Goenagari; I.
Sarasolak ahala Patxi Goenagari; X. Vi-
degainek ahala J. Haritschelharri; Mikel
Zalbidek ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Ara-
bako Foru Aldundiko Jauregiko «Jose
Antonio Agirre lehendakaria» bilera-a-
retoan, goian ageri diren euskaltzainak
bertan direla

Etorririko euskaltzainak agurtu ondo-
ren, euskaltzainburuak batzarrari hasie-
ra eman dio.

1. Arabako Diputazioko buruaren agurra

Batzarraren hasieran, Javier de Andres
ahaldun nagusi jaunak, Iciar Lamarain
Kultura, Euskara eta Kirola diputatu
andrearekin batera, bilera-aretora etorri eta
bertan batzarturiko euskaltzainei bisita
egin die, guztiak agurtu eta ongi etorria
emanez. Era berean, Euskaltzaindiaren
jardunaren garrantzia aitortu eta azpima-
rratu du, Javier de Andres jaunak. Ikasto-
len jaian esandakoa ere berretsi du, hots,

euskarak Araban, jendearen aldetik, gero eta atxikimendu handiagoa daukala, eta jada euskaldun gehiago direla Araban orain urte batzuk Bizkaiak zituenak baino. Bere agurra amaitzean, lankidetasunerako hitzak ere esan ditu. Erantzutean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio diputazioburuari, Akademiari ekitaldi honetan egin zaion harrera onagatik eta orain arteko laguntzagatik. Honela, krisia gorabehera, aurrerantzean ere elkarlanean segitzeko asmoa agertu dio.

2. Aurreko akta onartzea

Oraingoan aurreko batzarraren akta beranduago bidali denez, horri buruzko oharra irailaren 17ra arte bidali ahalko dira, beraz, bilera-agiriaren onarpena irailako utzi da.

3. Exonomastika

3.1. «Asiako toponimia II» araugaia. Hegoaldeko eta Erdialdeko Amerikako toponimia araugaia onartzea, hala erabakiko balitz

J. L. Lizundiak hitza hartu eta, aurreko bilkuran aurkezturiko araugaiak ez dela oharrik etorri azaldu du. Beraz, zerrenda hori onarturik gelditu da.

Ondoren, Exonomastika batzordearen buruak hurrengo lanak zeintzuk izango diren ere azaldu du laburki. Lehenik, orain arteko zerrendetan ustekabeen gertaturiko lapsus eta hutsak zuzentzea, testu osoa behar bezala argitaratzeko. Gero, 2012ko azkenaldian eta 2013ko lehen partean, Astronimia lantzen hasiko da eta, X. Kintanak aurkezturiko oinarritzko materialen gainean, A. Muxikak prestatuturiko zerrenda xehatuagoak aztertuko dira. Hasteko, eguzki sistemako planetak eta satelliteak landuko direla azaldu du, horien ondoren asteroide, kometa, galaxia eta konstelazio nagusiekin segitzeko.

Hurrenik, eginkizunen artean ondokoak zerrendatu dira: exoantroponomia, hots, atzerriko pertsona-izenak; mitologia eta fikzioa; familia-dinastiak, talde eta gertaera historiko, politiko, sozial eta erlijiosoak; etniak, herriak eta leinuak; leku-edo leku-izenetatik eratorririko izen zein adjektiboak; berrikustekoak, eguneratze-koak eta eransteakoak, bai eta kanpotik iristen diren galderi erantzutea ere.

4. 2012. urterako aurreikuspenen garapena

4.1. Euskaltzaindiaren Lan, Ekonomia eta Antolakuntzarako batzorde ahal- duaren (LEABA) proposamena aurkeztu

Euskaltzaindiak dituen zailtasun eta erronka ekonomikoei erantzun egokia eman ahal izateko, zuzendaritzak Lan, Ekonomia eta Antolakuntzarako batzorde ahal-

dundua (LEABA) eratzeko proposamena egitea erabaki du, 2012ko uztailearen 18an izandako bileran. LEABA zer den, zertarako sortuko den, horren iraupena, xedeak, etab. egoki azaltzeko, dokumentu bat banatu zaie euskaltzain osoei. Euskaltzainburuak idazkia irakurtzeaz gain, puntu bakoitzeko azalpenak ere eman ditu.

Adolfo Arejita euskaltzainak hitza hartu du, aldi baterako batzorde ahaldun suntsikorra eratzeari ideia egokia deritzola esateko.

Euskaltzainburuak gehitu du gai honen inguruan adituak direnei ere laguntza eskatu ahal izango zaiela. Gai honen inguruan bakoitzak izan ahal dituen iritziak eta egin nahi dituen oharrak irailaren hamazazpia baino lehenago bidali beharko ditu.

4.2. 2012ko aurrekontuaren exekuzioa lehen sei hilekoan

Gai hau Euskaltzaindiko kudeatzaileak azaldu du, luze eta zabal. Horretarako bi dokumentu banatu ditu: «DIRU SARRERAK: 2012ko Aurrekontuaren exekuzio-maila (urtarrila-ekaina)» eta «2012ko GASTU Aurrekontuaren exekuzio-maila (urtarrila-ekaina)».

Diru-sarrereri dagokienez, urte hasierako aurrekontuak eta gaur egungo aurreikuspenak ekarri ditu gogora kudeatzaileak. Bien artean dauden diferentziak eta zergatiak ere azaldu ditu. Zenbaki orokorreari dagokienez, 2012 urte hasieran onartu zen aurrekontua 2.989.067,66 eurokoa izan zen, eta gaur egun zuzendaritzak egiten duen urte amaierako aurreikuspena 2.886.193,51 eurokoa da. Aldaketarik aipagarrienak Eusko Jaurlaritza (-190.000 euro), Arabako Foru Aldundia (-18.750 euro), Bizkaiko Foru Aldundia (+115.000 euro) eta BBKren (-85.000 euro) partidenak dira.

Erakundearen baliabideak kudeatzeko orduan irizpide nagusienetako bat defizitrik ez sortzea den heinean, Euskaltzaindiaren gastuak ere diru-sarrereren aurreikuspen berriari egokiarazi behar zaizkio. Hori dela eta, 2.886.193,51 euroko gastu-aurreikuspena aurkeztu du kudeatzaileak, hori erakundearen zeregin nagusienak (zerbitzu, batzorde eta egitasmo) mantenduz bete ahal dela azpimarratuz. Iaz zuhurtziaz doitu ziren kontzeptu eta aurten lortzen ari diren aurrezkiei esker erdietsiko da, erakundearen jarduera kaltetu gabe, sarrera eta gastuen aurrekontuak orekatzeari. Hala onartu da.

P. Zabaleta euskaltzainak gogora ekarri du Nafarroako Gobernuak, urteko ekarpenaz gain, Euskaltzaindiari Iruñean duen bulegoa dohainik uzten diola, eta hori nola edo hala zenbakietan agertu beharko litzatekeela. P. Uribarren euskaltzainak ere iritzi berekoa dela esan du.

J. Zabaleta kudeatzaileak erantzun die hori ez dela Iruñean bakarrik gertatzen. Bilboko egoitza Bizkaiko Foru Aldundiak doan utzitakoa da. Luis Villasante Euskararen Ikerguna (Tolare) Donostiako Udalak uzten dio Euskaltzaindiari, musu-truk. Eta gauza bera gertatzen da Gasteiz eta Baionako bulegoekin, herri bakoitze-ko udalek dohainik uzten baitizkiote Euskaltzaindiari.

Lagapen bakoitzaren balioespenak egitea oso zaila denez gero, eta aldi berean oso subjektiboa, hori adituak diren pertsona edo enpresek egiten ez badute, oraingoz gaia dagoen bezala uztea erabaki da.

5. Euskaltzaindiaren plan estrategikoaren garapena.

Euskaltzainburuak batzordeburuekin azkenaldian egindako bileren berri eman du, eta hor batzorde bakoitzak etorkizun hurbilean betetzen diharduen helburu eta eginkizunen ibilbidea nola doan azaldu du, lehenago zuzendaritzako kideei egin zien bezala.

6. Eskuartekoak

6.1. Euskaltzain urgazleak hautatzeko irizpideak aurkeztu

Euskaltzaindian aurrerantzean euskaltzain urgazleak izendatzeko prozedurari buruz Patxi Uribarrenek txosten bat aurkeztu zuen Zuzendaritzan. Beronek, lan hori oinarritzat harturik, urgazleen kopurua eta maila objektibizatze xedeaz, proposamen horretan zenbait ukitu eta gehipen eginda, Zuzendaritzak onartu eta orain euskaltzain osoen aurrean aurkezten da proposamen gisa, iritzi eske.

Dokumentua batzarkideen artean banatu da, eta hitza P. Uribarrenek hartu du, testua irakurtzeko. Irakurraldian pasarte eta irizpide batzuk xehekiago azaldu ditu. Ondoren, euskaltzainburuak inoiz gerta daitezkeen bateraezintasun-kasuez mintzatu da, kontraesan eta interes kontrajarriak saihestearren.

J.L. Lizundiak hitza eskatu du. Bere ustez izendapenekin zer ez den gertatu behar adierazi du. Hau da, batzuek ahoz norbait proposatu eta hurrengo bilera batean beste hautagai ezberdin bat aurkeztea. Horrek mindura sorraraz lezake. Bai eta, euskal herrialdeen arteko partaidetasun-orekari dagokionez, lurralde batzuetan inor ez proposatzeak ere. Herrialde guztietako partaidetasun orekatua beharrezkoa dela azpimarratu du.

J. Lakarrak bateraezintasunaren kontua aipatu du, eta hor kasuak xehekiago zehaztu beharko lirartekeela uste du, gaizki ulerturik ez izateko. Ez dago garbi, bere ustez, jardun-eremu bereko lehiakideen arazoa.

Bestalde, J. Haritschelhar mintzatu da, eta adinaren aipamenaz bere kezka adierazi du. Euskaltzain osoentzat adin-mugarik ez baldin bada, bere ustez, urgazleek ere ez lukete halakorik izan beharko. A. Urrutiak gai horretaz proposamen idatzia egiteko eskatu dio.

P. Zabaletak ere antzeko erreparoa adierazi du adinari dagokionean. Bestetik, ez dakusa garbi bateraezintasunaren aipua. Euskaltzaindiak, izatekotan, aurkakoak edo etsaiak izan ditzake, baina bere eremuan lehiakiderik ez. Atal hori bestela formulatu behar dela uste du. J. L. Lizundia Patxi Zabaletak esandakoarekin bat dator, eta atzerrikoek ohorezkoak izatera pasatu behar dutela uste du.

B. Atxagak hitza hartu eta, hautagaiek bete beharreko baldintzetan malgutasuna izatea proposatu du, une bakoitzean Euskaltzaindian nabarmentzen diren premiak eta zereginak nolakoak diren kontuan harturik, eta ez, soilki, hautagaiaren ohore hutsagatik. Adibidetzat itzulpengintzaren hutsunea aipatu du.

M. L. Oñederrak galdetu du ea Euskaltzaindia bezalako beste hizkuntza-akademiek ere ba ote duten, bertako kideak izendatzeko orduan, antzeko bateraezintasunik. Euskaltzainburiak baietz erantzun dio eta, zehatzago, Kataluniakoaren kasua azaldu dio.

Ohorezko euskaltzainen eta euskaltzain osoen bateraezintasunaren kontua dela eta, P. Uribarrenek barne-erregeletan nolabaiteko kontraesanak ageri direla esan du, eta komeniko litzatekeela egun batean horiek berrikustea. Tx. Peillenek, ahanzturaz, ohorezko izendapenik gabe hil diren euskaltzaleen kasua ere gogorarazi du, eta hemendik aurrera hori, ahal dela, ekiditeko eskatu du. Patxi Uribarrenek ere gauza bera azpimarratu du, huts hori nondik heldu den azalduz: pertsona ezagun horiek jada euskaltzain urgazleak zirela oker uste izatetik, eta, beraz, aurrerantzean, huts hori saihesteko ahalegina egin beharko da.

A. Urrutiak, euskaltzainen adierazpenak eskertuta, gogorarazi egin du oraingoa lehen gogoeta besterik ez dela, guztien iradokizunekin behin betiko testua hobetzeko. Proposamenari buruzko oharra eta aldaketak igortzeko azken epea 2012ko irailaren 17a izango dela erabaki da.

Honen ondoren etena egin da, Joseba Intxaustiren *Argibide Bibliografikoak* liburua euskarri digitalean aurkezteko. Bilkurari, 12:30 direnean segida eman zaio. Tarte honetan, J. L. Lizundiak oharra eman dio idazkariordeari, Gasteizko ospitalean senide bat daukanez gero, bileratik alde egin behar duela esanez, eta ahala, J. Haritschelharri eman dio.

6.2. Bestelakoak

6.2.1. Karmele Esnalen hilberri txostena

Karmele Esnal Ohorezko euskaltzaina hil dela eta, aurreko Osoko batzarrean egindako proposamenarekin bat, horren hilberri txostena prestatzea Miren Azkarate euskaltzainari eskatu zaio eta aintzat hartu du.

6.2.2. Ageriko bilkuretako bilera-agiriak onartzea

Aurrekoan banatu ziren ageriko bilkuretako bilera-agiriak direla eta, emandako epean ez da ekarpenik etorri. Beraz, ondokoak onartu egin dira:

- a) *Nafarroa Oinez* ospakizuna dela eta, Tafallan 2011ko irailaren 30ean egin zen Ageriko bilkuraren bilera-agiria.
- b) *Luis Villasante Euskararen Ikergunaeren* inaugurazio-ekitaldia dela eta, Donostian 2011ko urriaren 28an egindako Ageriko bilkuraren bilera-agiria.
- c) *Euskal Gramatika Lehen Urratsak VII (perpaus jokatugabeak)* liburuaren aurkezpena dela eta, Bilbon 2011ko azaroaren 25eko Ageriko bilkuraren bilera-agiria.
- d) *Agosti Xahoren bigarren mendeurrenean*, Baionan 2011ko abenduaren 16ko Ageriko bilkuraren bilera-agiria.

6.2.3. Epaimahaikide-izendapenak

Zinpeko itzultzaileen habilitazio dekretua (88/2009) dela eta, batetik, euskaratik ingelesera eta ingelesetik euskararako hizkuntza-bikotearen habilitazioa gidatu behar duen epaimahaian Euskaltzaindiari ordezkari bat izendatzea eskatu zaio. Bestetik, euskaratik frantsesera eta frantsesetik euskararako itzulpenak bideratzeko epaimahaian Akademiak beste ordezkari bat izendatzeko eskea heldu da. Horiei erantzunez 2012ko uztailearen 3ko Zuzendaritzan lagun hauek izendatzea erabaki du:

- Euskaratik ingelesera eta ingelesetik euskararako zinpeko itzultzaile eta interpreteen habilitazioa bideratuko duen epaimahaiko kide izateko: *Nick Gardner* euskaltzain urgazlea.
- Euskaratik frantsesera eta frantsesetik euskararako zinpeko itzultzaile eta interpretarien habilitazioa bideratuko duen epaimahaiko kide izateko: *Xarles Videgain* euskaltzain osoa.

6.2.4. Elhuyar Fundazioarekin izenpeturiko hitzarmena

Euskaltzaindiaren eta Elhuyar Fundazioaren arteko hitzarmena sinatu da, *Lexikoaren Behatokia* deritzan egitasmorako, *Elhuyar zientzia eta teknika* aldizkariaren testu-masa erauzteko.

6.2.5. Gipuzkoako Kutxaren ekarpena, *Euskaltzaindiaren Alde* Fundazioari

Gipuzkoako Kutxak Akademiaren *Euskaltzaindiaren Alde* Fundazioari 150.253,03 euroko ekarpena egin dio. Zuzendaritza ahaleginak egiten ari da Arabako Foru Aldundiak ere Euskaltzaindiaren Fundazio horretan parte har dezan.

6.2.6. Euskaltzaindiko langile batek aurretiko erretiroa

Euskaltzaindiko Liburutegiko langile batek erretiroa hartzeko zorian dagoela eta, horren argibideak eman dira. Ordezkapena egin eta lanpostua betetzeko deialdia datozen egunetan egingo dela jakinarazi da.

6.2.7. Liburu berria: *Leioako leku-izenak*

Obra hau *Izenak* bilduman argitaratu da, eta Leioako eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren ondorioa da. Aurkezpena Euskaltzaindiaren egoitzan egin zen hil honen hasieran.

6.2.8. Jaurlaritzak 2012rako aginduriko diru-laguntza murriztu dio Euskaltzaindiari

J. Zabaletak iragarri duenez, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saitetik gutun bat jaso da. Horretan esaten denez, Euskaltzaindiari 2012rako jada esleituriko laguntzatik diru mordo handia atxiki ez eze, baizik ez ematea erabaki duela jakinarazten zaio Akademiari. Zuzendaritzak helegite edo errekurtsio bat jartzea erabaki du. Euskaltzaindia ez dago konforme, horrek aurretik sinaturiko kontratu-programa urratzen duelako. Hortaz, lehendakariari gutuna bidaltzea erabaki du, berekin mintzatzeko hitzordua eskatuz. P. Zabaletak ohar bat egin du prozedura hobeki joan dadin: lehenik gutuna bidali, eta gero errekurtsioa jarri. Horrela egitea erabaki da.

6.2.9. Hurrengo Osoko batzarra

Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra irailaren 28an egingo da Iruñean, Kondesablearen Jauregian, alde zaharrean, udaletxearen ondoan, eta ondoren, Ageriko bilkuran, EHAA IV. liburukiaren aurkezpena egingen da.

7. Azken ordukoak

7.1. Zuzendaritzak bere azkeneko bilera-agirian txertatutako adierazpena

Jose Luis Lizundiak euskaltzain osoei, zuzendaritzako kideei eta Onomastika batzordeko kideei bidaliriko idatziak direla eta, Zuzendaritzak, horretarako bildurik (buruordeak ezin etorria adierazi zuen eta, puntu hau eztabaidatu bitartean, Jagon sailburua aretotik kanpo egon da) uztailaren 18an adierazpen bat idatzi du, aho batez erabaki duena, euskaltzain osoei eta onomastika batzordekideei jakinarazteko asmoz.

J. Haritschelharrek esan du testu hori J. L. Lizundiari zuzenik doakionez, bera presente dagoela irakurri beharko litzatekeela. Euskaltzainburuak esan du ez duela inolako eragozpenik beraren aurrean ere berriro irakurtzeko. Ondoren, Zuzendari-tzaren testua irakurri du euskaltzainburuak.

7.2. Andres Iñigo Jagon sailburuaren informazioa

Aurreko puntuan aipaturiko J. L. Lizundiaren idatziak direla eta, A. Iñigok berari buruz J. L. Lizundiak emaniko iritzi eta eginiko salaketen gainean, informazio argigarria emateko hitza eskatu du. Adierazi du berari gizalegeak eta duintasunak agintzen dioten lekua, Osoko bilkura alegia, hautatu duela azalpenak eta ohar argigarriak euskaltzain guztien aurrean emateko. Egin duen azalpen luzearen bukaran jakinarazi du bere aldetik informazio horrekin amaitutzat ematen duela Lizundiak sorturiko afera. Azkenik, jasandako guztiaren ondorio gisa, Euskaltzaindiaren organigraman dituen ardura eta kargu guztien dimisioa aurkeztu du.

Euskaltzainburuak A. Iñigoren dimisioa mahaiaren gainean geratzeko eskatu du, aztergaien artean puntu hori ez dagoela argudiatuta, beraz, hurrengo Osoko bilkuran txertatuko da aztergaien artean.

Batzarra ordu biak eta hogeian amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria